

**11/2018 TXOSTENA, UZTAILAREN 26KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: PROIEKTUA, ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA ETA OBRA BATERA LIZITATZEKO
AUKERA, BIM METODOLOGIA ERABILTZEGATIK****Aurrekariak:**

Eraikuntza-informazioaren modelatzea (BIM, Building Information Modeling), eraikingintzarako informazioaren modelatzea ere deitua, eraikin baten bizi-zikloko datuak sortu eta kudeatzeko prozesua da; eraikinak hiru dimentsiotan eta denbora errealean modelatzeko software dinamikoa erabiltzen da, denbora eta baliabide gutxiago erabil daitezela diseinatu eta eraikitzeko orduan. Prozesu horren bidez eraikinaren informazioaren eredia sortzen da (BIM), honako hauek barnean hartzen dituena: eraikinaren geometria, espazio-erlazioak, informazio geografikoa, bai eta haren osagaien kopuruak eta propietateak ere.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak gizarte-etxebizitza batzuk eraikitzea lizitatu nahi du tresna hori erabiliz, zeinak –aztergai dugun txosten-eskaerarekin bat etorri– «bizi-zikloan hasieratik parte hartzen duten eragile guztiek esku hartzea baitakar», eta «horrek justifikatzen du proiektu eta obraren baterako balizko lizitazioa».

Sailak aipatu duenez, Sustapen Ministerioak BIM nahitaez erabili beharra ezartzeko asmoa iragarri zuen; eraikinaren lizitazioetan, 2018ko abendurako, eta obra zibilekoetan, 2019aren amaierarako, 2018ko martxotik aurrera gomendagarria izanik. Hala eta guztiz ere, haren webgunean «epe horiei buruzko aipamenak ezabatu» dituztela adierazi du ondoren, «sektorea oraindik erronka horri aurre egiteko behar bezain prestaturik ez dagoela iritzita agian».

Hori horrela, Batzorde honetan gai hauei buruzko txostena egiteko eskaera jaso dugu:

- Batera lizitatu ahal dira (oinarrizko proiektua + egikaritze-proiektua) + obra + zuzendaritza fakultatiboa?
- Eta egikaritze-proiektua + obra batera, eta zuzendaritza fakultatiboa bereizirik?
- Eta salbuespen jakin batean bakarrik edo obra guztietarako izan daiteke?

- Aurretik emandako erantzunaren arabera, zer plegu erabili behar dira: obra-kontratua, kontratu mistoa? Ba al dago azken plegu mota hori? Nola egokitu beharko lirateke prestazio guztiak bildu beharreko pleguak?
- Eska al daiteke arkitektoak eta aparejadoreak zuzeneko lan-harremanik ez izatea eraikuntza-enpresarekin?

Eskumena:

I. - Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.c) artikulua arabera, aholkularitza-eginkizuna betetzen duenean, honako hau egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari, besteak beste: *«Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoaren alorrean haren irizpena eskatzen duten gaietara buruz informatzea; irizpen-eskaera hori kontratazioa kudeatzeko mandatua duten Eusko Jaurlaritzako zuzendariak edo sektore publikoko gainerako erakundeetako legezko ordezkariak egin behar dute, idatziz».*

II.- Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzako sail bateko kontratazioaren arloko gai bat denez, eta sail horretako kontratazioaren ardura duen zuzendariak egin duenez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua c) letraren barnean kokatzen da zalantza hau.

ALDERDI JURIDIKOEN AZTERKETA.

Lehenengoa.- Sektore Publikoko Kontratuen Legeak (azaroaren 8ko 9/2017), zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten den Espainiako ordenamendu juridikora, honako hau dio 234. artikuluan:

«1. Salbuespen-kasuetan bakarrik kontratatuko dira batera proiektua egiteko eta obra exekutatzeko lanak, eta kasu hauetan bakarrik egin ahal izango da (espedientean behar bezala justifikatuko dira, halaber):

- a) Arrazoi teknikoak direla-eta, enpresaburua, ezinbestez, obraren azterlanekin lotu beharra dagoenean. Arrazoi horiek obraren xedearekin edo obra gauzatzeko teknikekin lotuta egon behar dira nahitaez.*
- b) Obraren tamaina edo zailtasun tekniko bereziak direla-eta, enpresen baliabideen bidez eta berezkoa duten gaitasun teknikoaren bidez konponbideak eman behar zaizkienean.*

2. Nolanahi ere, era horretako kontratuaren lizitazioa egin aurretik administrazioak edo entitate kontratatzaileak dagokion aurreproiektua edo antzeko agiria idatzi beharko du, eta, justifikatutako arrazoiak direla-eta interes publikorako komenigarri denean, orduan bakarrik idatzi ahal izango ditu oinarri tekniko hutsak, proiektuak errespetatu beharrekoak.

[...]»

Bigarrena.- Txosten-eskaerak aipatutako a) kasuari heltzeko aukera proposatzen du, gizarte-etxebizitzan eraikin batzuen lizitazioan BIM metodologia erabili nahi dutela kontuan harturik; honako hau ulertzen baitute: «Aipatutako metodologia erabiltzearen bertute nagusia da eragile guztiek hasieratik prozesuan parte hartzea; ondorioz, proiektua eta obra enpresa adjudikaziodun bakarrari adjudikatzeko ideia indartzen da, zeinak koordinaturik lan egingo baitu hala Eusko Jaurlaritzarekin (sustatzailea) nola Alokabiderek (eraikinaren kudeatzailea izango dena)».

Halaber, BIM erabiltzeko exigentzia proiektu oso zehatzei lotzea eta loteka ere lizitatzea (batetik, proiektua idaztea eta zuzendaritza fakultatiboa, eta bestetik, obra) planteatzen dute.

Hirugarrena.- Eskatzaileak aipatzen duen 2014/24/UE Zuzentarauak honako hau adierazten du 22. artikuluan:

«[...]

4. Obraren kontratu publiko eta proiektuen lehiaketetarako, estatu kideek berariazko tresna elektronikoa erabiltzea eskatu ahal izango dute, hala nola eraikinak elektronikoki diseinatzeko tresnak edo antzekoak. Horrelakoetan, botere adjudikatzailerik ordezkotzat sarbide-baliabideak eskainiko dituzte, 5. apartatuan xedatutakoaren arabera, harik eta tresna horiek, 1. apartatuko lehen leherkadaren bigarren esaldiaren zentzuarekin, orokorrean eskuragarri dauden arte.

5. Beharrezkoa bada, botere adjudikatzailerik orokorrean eskuragarri ez dauden tresnak eta gailuak erabiltzea eskatu ahal izango dute, baldin eta botere adjudikatzailerik ordezkotzat sarbide-baliabideak eskaintzen badituzte.

Botere adjudikatzailerik ordezkotzat sarbide-baliabide egokiak eskaintzen dituztela ulertuko da, baldin eta:

a) Bitarteko elektronikoz tresna eta gailu horietarako sarbide osoa eta zuzena doan eskaintzen badute iragarkia argitaratzen den egunetik aurrera, VIII. eranskinarekin bat etorritik, edo interesa berresteko gonbidapena bidaltzen den egunetik aurrera; iragarkiaren

edo interesa berresteko gonbidapenaren testuak tresna edo gailu horiek Interneteko zer helbidetan dauden eskuragarri zehaztuko du;

b) Bermatzen badute direna direlako tresna eta gailuak eskuragarri ez dituzten lizitatuzaileek, edo ezarritako epearen barruan eskuratzeko aukerarik ez dutenek, betiere hori dena delako lizitatuzaileari egozterik ez badago, linean doan dauden behin-behineko fitxak erabiliz kontratazio-prozedurara jo ahal dutela, edo

c) Eskaintzak elektronikoki aurkezteko ordezeko bide bat onartzen badute.

[...]»

Aipatzen duen «orokorrean eskuragarri» kontzeptua, Zuzentarau horren 22.1 artikulua arabera, hau da:

«... Bitarteko elektronikoen bidez komunikatzeko erabili beharreko tresnak eta gailuak, bai eta haien ezaugarri teknikoak ere, ez dute diskriminaziorik eragingo, eskuragarri egongo dira oro har, bateragarriak izango dira erabilera orokorreko produktu informatikoekin eta operadore ekonomikoei ez die oztopatuko kontratazio-prozeduretarako sarbidea».

Laugarrena.- SPKLren Hamabosgarren Xedapen Gehigarriaren 6. apartatuarekin bat etorriz:

«Obren, obra-emakiden, zerbitzuen eta proiektu-lehiaketen kontratu publikoetarako, eta haien elementuak uztartzen dituzten kontratu mistoetan, kontratazio-organoek berariazko tresna elektronikoak erabiltzea eskatu ahal izango dute, eraikuntza-informazioaren modelatze digitalerako tresnak (BIM) edo antzekoak, besteak beste. Horrelakoetan, ordezeko sarbide-baliabideak eskainiko dituzte xedapen gehigarri honen 7. apartatuan xedatutakoaren arabera, harik eta tresna horiek eragile ekonomikoentzat orokorrean eskuragarri dauden arte».

SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarriaren 7. apartatuak 2014/24/EB Zuzentarauaren 22. artikuluko 5. apartatuaren edukia errepikatzen du (lehen transkribatutakoa).

Aurretik aipatutako guztiagatik, 2018ko uztailaren 26an Batzorde Iraunkorrean bilduta, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak aho batez onartu zuen honako

ERABAKIA

Obra-proiektua, zuzendaritza fakultatiboa eta obra bera batera lizitatzeko aukerari buruzko honako txosten hau ematea:

BIM tresna erabiltzeari buruz esandakoa aukeratzat hartzen da salbuespentzat baino gehiago, ez dira, itxuraz, betetzen, beraz, SPKLren 234. artikulua baldintzak.

Halaber, eskaerak berak zalantzan jartzen du merkatuak tresna hori erabiltzeko erronkari aurre egiteko ahalmenik duenik, eta Aholku Batzorde honen iritziz ez dago oraindik haren erabilera behar bezain zabaldua; horrenbestez, 2014/24/EB Zuzendaritzaaren 22. artikuluan eskatutakoa betetzea ere arriskuan jarriko litzateke.

Kontratu misto bat lotetan zatitzen badugu (obra-kontratuari dagokion pleguarekin izapidetu beharko litzateke, prestazio nagusia hori delako, eta haren balio estimatua garrantzi ekonomiko handienarena da), obren lote bat eta zerbitzuen beste bat eginda, hori kontratuaren izaeraren beraren kontra doa, eta gainera, zaildu egingo luke prestazio guztiak enpresa berari adjudikatzeko helburua. Ez da gomendagarria, hortaz.

Prestazio ezberdin horien baterako lizitazioak arazo praktiko batzuk ere badakartza (kontratuaren betearaztean erantzukizunak ezin dira egoki argitu); hori dela eta, baterako lizitazio hori egitea ez da gomendagarria, ezta proiektua idazteari eta zuzendaritza fakultatiboari dagokienez ere. Gainera, denbora asko ere igaro daiteke proiektua idazten denetik obra gauzatu arte –eta, ondorioz, zuzendaritza fakultatiboaren kontratua gauzatzeko hasi arte–, eta horrek ere ez du aholkatzen bi zerbitzuak elkarrekin lizitatzea.

O.E.
PRESIDENTEA

Maite Basabe Txabarrik,
KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU
BATZORDEAREN IDAZKARIAK, ZIURTATZEN DU
kide anitzeko organo horretako Batzorde Iraunkorrek, 2018ko
uztailaren 26ko bilkuran, aho batez erabaki duela txosten hau
onartzea.
Eta hala ager dadin, hona hemen ziurtagiri hau,
Vitoria-Gasteizen, 2018ko uztailaren 26an

David Álvarez Martínez
ONDARE ETA KONTRATAZIOKO ZUZENDARIA